

PALACIOS, J.; MARCHESI, A eta COLL, C (1997): Garapen Psikologikoa eta Hegkuntza I. Psikologia Ebolutiboa UPV/EHU

## 1. Kapitulu

### Psikologia ebolutiboa, sarrera: Historia, oinarriko kontzeptuak eta metodologia

*Jesús Palacios*

Psikologia Ebolutiboa giza bizitzan zehar gertatzen diren aldaketa psikologikoen prozesuak aztertzen dituen psikologiaren zatia da. Zehatzago esateko, psikologo ebolutiboei interesatzen zaizkien aldaketak pertsonen garapenarekin, beren hazkuntza-prozesuekin eta beren bizitzako esperientzia esanguratsuekin zerikusia duten prozesuak dira. Aldaketa horiek hiru faktore nagusirekin dute lotura. Hona hemen faktore horiek: **1)** pertsona hori bizitzako zein etapatan dagoen; **2)** zein egoera kultural, historiko eta sozialetan bizi den eta **3)** norberaren esperientziak, banan-banakoak direnak, eta gainerakoetara zabaldu ezin direnak. Faktore horietako lehenengoak etapa jakin batean dauden pertsonen arteko homogeneotasuna ezartzen du (adibidez, nerabeen artekoa) eta bigarrenak halako homogeneotasun bat ezartzen du kultura berean, garai historiko berean eta gizatalde jakin baten barruan bizi diren pertsonen artean (mendebaldeko kultura, laurogeita hamarreko hamarkada, erdi mailako gizarte-klasea, adibidez). Hirugarren faktoreak, aldiz, faktore idiosinkrasikoak hartzen ditu aintzat. Horien ondorioz izango da, hain zuzen ere, garapen psikologikoa, pertsonen elkarren antza izanda ere, berdin-berdin errepikatatu ezin den fenomeno eta bi subjektuk ez dute, beraz, garapen psikologiko berdina izango.

Urte askotan zehar Psikologia Ebolutiboa haurtzaroaren eta nerabeza-roaren garapen psikologikoaren prozesuei erreferentzia egiteko erabili izan bada ere, psikologo ebolutiboek onartu dute pixkanaka-pixkanaka beren aztergaja pertsonen bizitza osoa eta bizitza horretan zehar gertatzen diren aldaketa psikologikoen prozesuak direla. Liburu honetan haurren eta nerabeen garapen psikologikoa bakarrik aztertzea bildumarien aukera bati besterik ez zaio zor eta ez da garapen psikologikoa hurrei eta gazteei da-

gokien gauza dela dioen uste zaharraren ondorio. 24. kapituluan adierazi dugunez, garapenak aurrera darrai nerabezeroaren ondoren. Izan ere, garapenak ez du etenik, bizitza guztian zehar gertatzen da.

Izenburuak berak adierazten duenez, kapitulu honen funtsezko helburua irakurlea Psikologia Ebolutibora hurbiltzea da. Horretarako hurbilpen hirukoitz bat erabiliko dugu: historikoa, kontzeptuzkoa eta metodologikoa. Irakurlea psikologiaren disziplina honen historiaren aldirik berrienera, oinarrizko kontzeptuetara eta garapena aztertzeke metodologiaren elementu batzuetara hurbiltzen ahaleginduko gara. Hasieratik bertatik azalpen sakon bat egiteko asmoa baztertu dugu, batetik leku-arazoa dela eta, eta bestetik, ziurrenik irakurle gehienaren interesekoa ez delako izango arlo honetako gaietan sakontzea.

Egin nahi dugun hurbilpen historikoak mende honetan Psikologia Ebolutiboaren orientabide nagusiak zeintzuk izan diren ezagutzea ahalbidetu behar du, gaur egungo egoeraren aipamen berezia eginez. Kontzeptuzko hurbilpenean garapenari buruzko hausnarketa orokorra egiterakoan jorratu ohi diren auzirik klasikoenetako batzuei —eta oinarrizkoen ere badiirenei— helduko diegu. Auzi horiek garapenaren kontzeptuarekin berarekin, herentziak eta ikaskuntzak duten paperarekin, estadio eta aldi kritiko-en nozioekin eta abarrekin dute zerikusia. Azkenik, garapenaren azterketa egiteko beharrezko diren metodologiaren oinarrizko elementuak hurbilduko dizkiogu irakurleari. Hori egiterakoan, batez ere, ikerketa-diseinu nagusiei erreparatuko diegu.

## 1. Psikologia Ebolutiboa, hurbilpen historikoa

### 1.1. *Haurtzaroaren eta nerabezeroaren gizarte-historia laburra*

Haurtzaroa eta nerabezeroa ez dira historian zehar gaur egun ulertzen ditugun gisa berean ulertu (DeMause, 1974). Gaur egun ezagutzen ditugun bezala, haurrak eta nerabeak «asmakuntza» sozio-kultural berri samarrak dira. Mendeetan zehar haurrak heldu txikiago, ahulago eta adimen gutxiagokotzat hartu izan dira. Erdi Aroan zazpi urte betetzen zituztenetik aurrera heldu baten ardurako apendiz bihurtzen ziren haurrak eta helduen erantzukizunetara gero eta gehiago hurbiltzen ziren ardurak hartzen hasten ziren. Haurra heldu txiki bat bailitzan ulertzen zuen ikuspegi horrek izan zuen bere isla artean, XVIII. mendera arte haurrak heldu txiki bezala agertzen ziren, helduen janzkera eta jarrerak zituztela.

XVII eta XVIII. mendeetan Ilustrazioa eta Protestantismoaren antzeko kultur eta erlijio-mugimenduek haurtzaroa aurkitu zuten, helduarotik berezitateko etapa eta tratamendu berezia eskatzen duena. Giza bizitzaren kontzeptzio fatalistak eta predeterministak desagertu ahala, pertsonak gehiago sentitzen dira beren existentziaren protagonista eta garrantzi gehiago ema-

ten diote gazteenen heziketari. Izan ere, azken finean ez da gauza bera norberaren kontrolpean ez dauden asmoek alde zuzenetik izango garena finkatzen dutela pentsatzea edo norberak bere bizitzaren ibilbidea zehatz dezakeela eta ibilbide hori alda dezakeela pentsatzea.

— XIX. mendeko azken hamarkadetan lorpen handiak egin ziren haurtzaroren eta bere tratamendu bereziaren inguruan. Aurrerapauso nagusia haurrak lan astunak egiteak askatzea izan zen. F. Engelsen, K. Marxen lagun bereiztezinaren, zenbait idatzitan aurki ditzakegu haur ingeles bizi-baldintzei buruzko deskribapen dramatikoak. Haur horiek egunean 12 ordu egiten zituzten gogor lanean lantokietan eta meategietan. 1833an inkesta bat egiteko kontsultatu ziren pediatria ingeles gehienek haurrentzat eguneko hamar orduko lanaldia zela egokiena iritzi zuten, lanaldi luzeagoen ondorioz haurrak nekaturia iristen baitziren igandeetako eskoletara eta bertan ematen zen irakaskuntza moralaren urrumen lo hartzen baitzuten.

Industrializazioaren aurrerakadak, langile-mugimenduen lorpenak eta enpresariaren interesak uztartzen joan ziren haurtzaroiaren estatus berezi bat emateko. Bultzada hori, gainera, ondoren derrigorrezko bihurtuko zen oinarrizko hezkuntza orokortzeak sendotu zuen. Estatus berezi hori pubertaterora iristerakoan amaitzen zen eta haurrak haur izateari uzten zion eta helduen bizitzan murgiltzen zen.

— XX. mendeak ere egin dio ekarpenik bilakaera horri, haurtzaroa aldi berezi gisa behin betiko finkatzea adibidez, eta batez ere, nerabezaroren kontzeptua. Liburuki honen 20. kapituluaren zehatzago adieraziko dugunez, haurren heriotza-tasak behera egiteak eta giza bizitza luzatzeak, derrigorrezko hezkuntza gero eta adin handiagoetara luzatzeak eta esku-lan gero eta gutxiago eta langile espezializatu gehiago behar dituen lanerako helduen artean esku-lan gehiegi izateak gure kulturaren nerabezarora haurtzarotik eta helduarotik bereizteko aldi gisa sortzea ahalbidetu dute. Helduen estatusaren sartzeko garaia, beraz, gero eta gehiago atzeratzen da eta horren ondorioz «gune ebolutibo» bat sortzen da. Gune hori neurri bateraino kultur eta gizarte-gune izan ohi da gune psikologiko baino lehenago. Antzeko zerbait esan genezake zahartzaroz ere, gaur egun gure artean uler-tzen dugun gisan (oraindik ere eraginkortasunez etekina emateko gai diren egoeran jubilatzea, bizitza gero eta luzeagoa eta abar) helduaroarekin erkatuz gero oso desberdina baita eta orain arte izan den gertakari biologikoa izateari utzi eta gertakari psikosozial berri bihurtu baita.

## 1.2. *Gure mendean Psikologia Ebolutiboak izan dituen orientabide nagusiak*

Psikologiaren ikuspegitik eboluzioaren inguruko gaiez aritu ziren lehenengo autoreak joan zen mendeko bigarren erdikoak eta mende honetako lehen hamarkadetakoak izan ziren. Denbora-tarte aski luze horretan zehar argitaratu ziren haurtzaroiari, nerabezaroiari, helduaroari eta zahar-

tzaroari buruzko lehen liburuak. Baina azken hamarkadetan Psikologia Ebolutiboan gailendu diren orientabide teoriko nagusien oinarriak askoz zaharragoak dira. Zehatzago esateko, XVII eta XVIII. mendeetan zenbait filosofok giza izaerari eta bere garapenari buruz zituzten kontzepzioak pentsamendu-tradizioen abiapuntu bihurtu ziren. Pentsamendu-tradizio horiek izan dute, mendeak joan ahala, garapen psikologikoari buruzko ikuspuntuetan islarik.

Horixe gertatu da, hain zuzen, J. Locke (1632-1704) eta D. Hume (1711-1776) britaniarren, gaur egun enpirismoa izenarekin ezagutzen dugun filosofia-ikuspegiaren aitzindarien kasuan. Guri interesatzen zaigunez, giza gogamenari buruz zituzten ideiak argi asko biltzen ditu Lockeren metafora ezagunak. Metafora horren arabera, jaiotzaren unean gogamena arbela huts batekin, *tabula rasa* batekin erka dezakezu. Ingurunearekiko kontaktuan haurrak duen esperientziak eta jasotzen duen estimulazioak zehaztuko lituzkete une oro psikismoaren edukiak. Aforismo klasiko baten bidez esanda, sentimenetatik pasa ez den ezer ez dago adimenean. Lockeren heriotza baino berrehun urte beranduago Psikologian aurkituko ditugu gizaki baten historia psikikoa bere esperientzien, bere ikaskuntzen, historia baino ez dela dioten posizioak. Horixe bera aldarrikatzen dute orientabide konduktista duten psikologoek, eta oro har, baita garapenaren eredu mekanizista deiturikoen ere. Ziurrenik ez da kasualitatea izango bai enpirismo filosofikoa eta bai konduktismo psikologikoa eremu anglosaxoian sortzea eta garatzea.

Gauzak oso bestela ikusi izan dira Europako kontinentean. J.J. Rousseau (1712-1778), batetik eta I. Kant (1724-1804) bestetik, izan litezke gizakiak jaiotzaz ezaugarri jakin batzuk dituela aldarrikatzen dutenen adibide. Ezaugarri horiek, Rousseuren kasuan bezala, haurraren ontasunaren ingurukoak izan daitezke edo, Kanten kasuan bezala, pentsamenduaren jaiotzetiko kategoriak. Azpimarratzekoa da Rousseauk dagoeneko berezi zuela haurtzarora hainbat estadiotan. Estadio horietako bakoitzak bere ezaugarriak izango ditu eta hezkuntza-tratamendu berezi bat eskatzen du. Bi pentsalari horiek beren lanak argitaratu zituztenetik bi mendetara, Europako kontinentean Psikologia Ebolutiboan garrantzi handiagokoak izan diren ekarpenak egin dituzten hainbat autore oso ondo koka ditzakegu tradizio filosofiko horretan, batzuek naturalista bezala eta besteek idealista bezala definitu izan duten filosofia horretan. Izan ere, Psikologia Ebolutiboan organismiko eta organizista deitzen diren planteamenduak bete-betean lekutzen dira pentsamenduaren tradizio horretan.

Horrenbestez, sustrai sakoneko bi tradizio ditugu mendebaldeko pentsamenduaren historian. Guri dagokigunean, bi ildo nagusi izan ditu horrek gure mendean: bata, batez ere ikaskuntza-prozesuak azpimarratzen dituen (konduktismoa, garapenaren eredu mekanizistak) eta bestea, esperientziaren faktoreei garrantzia kendu gabe, bereziki izaera unibertsala duten garapen-prozesuak —prozesu horiek kultura guztietako pertsona guz-

tiak izaten dituzte, giza izaeraren jaiotzetiko ezaugarrietan errotzen direlako— azpimarratzen dituenak (eredu organismiko edo organizista izenekoak) (Coll, 1979; Marchesi, Palacios eta Carretero, 1983). Merezki du hurbilpen horietako bakoitzari lerro batzuk eskaintzea.

Lehen ere adierazi dugun gisan, eredu mekanizista deiturikoak enpirismoaren tradizioan koka ditzakegu. Garrantzitsuena ez da organismoaren barruan dagoena, organismo horri kanpotik iristen zaiona eta aldarazten duena baizik. Pertsona baten historia psikologikoa ez da bere ikaskuntzen historia baino. Horixe bera esan genezake beheragoko espezieei buruz ere. Ikuspegi honetakoek operazioen arabera definitu daitekeena eta neurtu eta zenbatu daitekeena bakarrik landu ohi dute. Ez dute operazionalizazioaren eta egiaztatzearen logikatik kanpo dauden barruko prozesuei buruzko kontzepturik erabiltzen. Gauzak ulertzeko modu honen ekarpenek Psikologia Ebolutiboan baino eragin handiagoa izan dute Psikologia Orokorrean, Ikaskuntzaren Psikologian edo Psikologia Klinikoaren hainbat bertsioetan, oro har, dimentsio ebolutiboak bigarren mailako garrantzia izan baitu planteamendu mekanizistetan. Izan ere, ikuspegi horretatik, garapenak ez du barruko dinamika propiorik eta, lehen esan dugun gisan, ikaskuntzen historia izatera mugatzen da.

Gauzak oso bestela ikusten dira eredu organismiko edo organizista izenekoek ikuspegitik (ziurrenik izendapen hori mekanizismoarena bezain desegokia izango da, baina horixe izan da orain mintzagai ditugunak adierazteko errotu dena). Eredu honek garrantzi gehiago ematen die barruko prozesuei kanpoko estimuluei baino (horiek ere garrantzitsutzat jotzen badira ere). Garapen psikologikoa ez da nolana gertatzen, ez da subjektu bakoitzak erabat beste guztiek ez bezala egiten duen prozesu zehaztugabe bat. Bada nolabaiteko «behar ebolutibo» bat pertsona guztiak garapen-estadio jakin batzuetatik pasarazten dituenak. Estadio horiek gure espeziearen benetako unibertsal ebolutiboak dira. Bestalde, optika honetan dabilzanek zenbaezina den existentzia duten errealitateen inferentzia eskatzen duten kontzeptuak, egitura adibidez, erabiltzen dituzte. Azkenik beste hainbaten artean aipatzekoa da orientabide organismikoa edo organizista duten ereduak beste ezaugarri bat, garapenaren izaera teleonomikoa deiturikoa defendatzearekin zerikusia duena, hain zuzen ere. Adierazi horrekin honako ideia honi egiten zaio erreferentzia: garapen ebolutiboa xede jakin bat lortzera zuzendutako bidea da. Xede hori garapenaren gailurra izango da. Freud eta Piaget, izen handiko autoreak, dira ikuspuntu horien adibide garbiak. Nahiz eta batoren eta bestearen lanen eduki zehatzen arteko aldeak handiak izan, badituzte hainbat puntu komun, honako gai hauekin zerikusia dutenak: garapena estadioetan oinarrituta deskribatzearekin (autore horien ustez estadio horien sekuentzia ebolutiboa aldaezina izango da subjektu batzuetatik besteetara), haurtzaroko esperientziek ondorengo garapen psikologikoa zehazterakoan izango duten eragin erabakitzailearekin eta zenbatu ezin diren eta zuzenean behatu ezin diren prozesuen eta edu-

kien erreferentziekin (Freuden errepresioa eta Piageten egitura, adibidez) eta garapena xede batera (helduen heterosexualitate genitala, operazio formalak lortzera) zuzendutako prozesu gisa deskribatzearekin.

Hirurogeiko hamarkada arte eredu mekanizista eta organismikoa ziren Psikologia Ebolutiboko funtsezko azalpen-ereduak. Eredu organismikoa zen nagusi, eredu mekanizistak alderdi ebolutiboarekiko zuen sentsibilitatea eskasa baitzen. Baina hirurogeita hamarreko hamarkadaren azken aldera garapena aztertzen zuten ikertzaileek osatutako talde batek eredu horien mugapenen aurka erreakzionatu zuen eta XIX. mendetik zetorren tradizio bati lotuz, bizitza-zikloaren eredua izenarekin ezagutzen dena proposatu zuten. Proposamen hori *life-span* adierazle ingelesarekin ere izendatu zen. Adierazle horrek pertsona baten bizitzaren zikloa esan nahi du eta horrekin azpimarratzen da, hain zuzen, Psikologia Ebolutibo tradizionalari, bereziki organismikoari, egiten zaion kritiketako bat. Kritika horren arabera, Psikologia Ebolutibo tradizionala haur eta nerabeen garapen psikologikoz bakarrik arduratu zen eta aldaketa psikologikoen prozesuak giza bizitzaren edozein unetan, jaiotzatik heriotza bitartean, gertatzen direla ahazten zuen (Baltes, 1979).

Haatik, ez da hori bizitza-zikloaren ikuspegitik Psikologia Ebolutibo tradizionalari egiten zaion kritika bakarra. Ikuspegi horretakoek garapena xede unibertsal bat lortzera bideratutako prozesua dela dioen ideia kritikatzan dute (autore hauen arabera, ez dago xede ebolutiborik). Ez datoz bat haurtzaroko esperientziek nahitaez ondorengo garapen psikologikoa osatuko dutela dioen ideiarekin. Ez dute onartzen kulturarekin zerikusirik ez duten estadio unibertsalak badaudela dioen ideia. Jatorri teoriko desberdineko azalpenak aldi berean izatea ahalbidetuko duen pluralismorantz jo behar dela uste dute (agian garapenaren prozesu batzuk ikuspegi mekanizistatik hobeto argituko dira eta beste batzuk, aldiz, eredu organismikolari jarraituz justifikatuko dira). Asko azpimarratzen dute hazten den lekuko kulturak eta belaunaldi batekoa edo bestekoa izateak garapen psikologikoan duen eragina (belaunaldi bakoitzak egoera historiko jakin baten eragina izango du eta eragin hori, jakina, ez da izango aurreko belaunaldietakoek izan zutena bezalakoa). Bada, ikus dezakegunez, kontzepzio hau ez da garapenaren tradiziozko kontzepzioa bezain murriztailea. Ikuspegi mekanizistak baino sentsibilitate handiagoa du alderdi ebolutiboarekiko, ikuspegi organismikoak baino sentsibilitate handiagoa du inguruarenean eraginarekiko eta gehiago arduratzen da kulturaren paperaz (horrek, kapitulu honetako 3. atalean ikusiko dugunez, ondorio metodologikoak izango ditu).

Psikologia Ebolutiboak gaur egun duen egoeraren deskribapena egin nahi bada ohikoa da hiru eredu ebolutibo nagusi horiek aurkeztea, Psikologia Ebolutibo garaikidearen egoera hiru horietan gauzatzen eta laburtzen dela jakintzat emanez. Hiru alderdiko ikuspegi horrek, aitzitik, hirurogeita hamarreko hamarkadako amaierako eta laurogeiko hamarkadako lehen ur-

teetako egoera adierazten du, laurogeita hamarreko hamarkadaren hasiera-ko egoera baino gehiago.

Gaur egungo egoera, izan ere, hiru alderdiko ikuspegi horrek adierazten duena baino konplexuagoa da. Ikuspegi mekanizista horiek ekarpen gutxi egiten dizkiote garapenari, Bandura bezalako autoreen ekarpenak, salbu. Izan ere, Banduraren konduktismoak bilakaera handia izan du eta ikuspegi murriztaileetatik oso urrun dago; gisa horretako autoreak, «Skin-nerren kaxa» deituriko ikaskuntza-ereduetatik oso urrun daude eta beren ikuspegiak gizarte-moldeamendu eta baldintzapenak azpimarratzen dituzte. Ez dira mugatzen beha daitekeena bakarrik aintzat hartzera eta ahalegin handia egin dute orientabide berriagoetara hurbiltzeko, adibidez, orientabide kognitiboetara hurbiltzeko.

Postulatu organismiko zaharrei dagokienez, dagoeneko beren loraldia amaitu dela esan dezakegu. Oraindik ere guztiz indarrean dauden ekarpenak badauden arren (adibidez, Piagetek adimenaren garapenari buruz eskainitako datu asko), bizitza-zikloaren ikuspegiko autoreen kritikek funtsezko postulatuetakoz batzuen sinesgarritasuna ahuldu egin zuten neurri handi batean. Baina arazoak beste hainbat norabidetatik ere etorri dira. Adibidez, Piageten kasuan bezala, garapenaren deskribapenaren oinarri izan ziren saiakuntzak errepikatzeke egin ziren ikerketetatik. Ikerketa horiek agerian utzi dute maiz hasieran jaso ziren datuen berdinak ez diren datuak ere badaudela eta datu horiek interpretatzeko hainbat modu daudela (egituraren nozio iheskorra jo gabe, adibidez). Arazoak zenbait orientabide berritatik ere iritsi dira, bai alderdi teorikoari dagokionean, bai metodologikoari dagokionean. Orientabide horiek tradizioko ikuspuntu batzuen hautabideak eskaini dituzte (horixe egin dute, esate baterako, informazioa prozesatzeko eredu batzuen ekarpenek Piageten ideietan oinarrituta).

Bestalde, bizitza-zikloaren orientabideari dagokionez, esan dezakegu egindako ekarpenetatik askok gaur egun oraindik ere indarrean jarraitzen dutela, bai kontzeptuzko alderdian (eredu tradizionalak zuten garapenaren kontzeptua bezain murriztailea ez dena), bai alderdi metodologikoan (metodologia sofistikuagoa eta belaunaldiaren taldearekin zerikusia duten esperientzien eginbeharrarekiko sentsibilitate handiagoa duena). Dena dela, bizitza-zikloaren ikuspegia gizakien garapen psikologikoari buruzko teoria baino gehiago marko zabal bat, kontzeptuzko konpromiso gutxi dituen, dela esan dezakegu. Hori dela eta, ikuspegi horretan kokatu ahal izango dira hainbat ikuspuntu teorikotatik egindako ikerketak, oinarritzko baldintza batzuk betetzen badituzte behintzat: garapena bizitzako lehenengo urteetan gertatzen dena ez mugatzea, garapen psikologikoa hainbat kausa dituen eta hainbat norabidetan bidera daitekeen prozesua dela onartzeari, alderdi psikologikoak alderdi biologikoarekin eta historiko-kulturalarekin dituen harremanak aintzat hartzea eta alderdi horiekiko guztiekiko sentsibilitatea duten ikerketa-metodoak erabiltzea.

Baina, lehenago ere adierazi dugunez, gaur egungo Psikologia Ebolutiboak fokatze eta ikuspegi gehiago ditu eta horiek guztiak ezin dira uzartu arazorik gabe eta aipatu berri ditugun hiru eredu markoan berariaz duten izaera galdu gabe. Ondoren ikuspegi horietako batzuk aipatuko ditugu laburki: ekologikoa, etologikoa, kognitibo-ebolutiboa eta informazioa prozesatzearena, eta hurbilpen historiko-kulturala.

Ikuspegi etologikoak Psikologia Ebolutibo garaikideari egindako ekarpenak batez ere bi alderditan zehazten dira. Horietako bat kontzeptuzkoa da eta bestea metodologikoa (López, 1983). Lehenengoari dagokionez, orientabide etologikoa duten autoreek batez ere egokitze-giroaren kontzeptua azpimarratu dute, eta giro horren eskaeretara egokitzeak jokabidean duen eragin erabakitzailea nabarmendu dute. Baina ikuspegi horretan bertan kokatzen direnek irakatsi digutenaren arabera, egokitze-giroaz ari garenean ez dugu gure espezieko egokitu behar dugun gaurko giroan bakarrik pentsatu behar. Garrantzitsua da kontuan hartzea gure espeziearen bilakaeran gure arbasoek zein girotara egokitu behar izan zuten. Portera-eredu batzuek espeziearen biziraupenerako halako garrantzia izan zuten, espezieko kide guztien identitatearen ezaugarrietan grabaturik gelditu dira, nahiz eta gaur egun helburu hori lortzeko baliagarriak ez izan. Horrenbestez, ikusmolde etologikoa duten autoreek espeziearen garapenaren (filogenesiaren) eta gizabanakoaren garapenaren (ontogenesiaren) arteko lotura azpimarratu dute. Nolanahi ere, hori ez dute azpimarratu ontogenesia filogenesiaren errepikapen sistematikoa dela defendatzeko, baizik eta gizaki guztietan banakako bizitza-egoeraren ondorioztat hartu beharrean gure geneetan oihartzuna (horrek oraindik ere zenbaitetan jokabide-jarraibideak eta garapen-ereduak baldintzatzen ditu) izan duen biziraupenaren aldeko borroka luze baten ondorioztat hartuta hobeto ulertzen diren portaera-jarraibideak badirela azpimarratzeko. Irakurleak izango du aukera 2., 3. eta 6. kapituluetan aipatu berri dugunaren adibideak aurkitzeko. Bigarren kapituluaren hurreko jaiotzerakoan dituzten erreflexu batzuetan iraganak duen eragina erakutsiko dugu; hirugarrenean haur jaioberri guztiek informazioa prozesatzeko dituzten ohiko moduak aztertuko ditugu; eta seigarrenean haurren eta bere zaintzaileen arteko emoziozko harremanak aztertuko ditugu, baita harreman horiek zein bideren arabera ezartzen diren ere.

Metodologiari dagokionez, ikuspegi etologikoak jokabidea sortzen den ingurunean bertan behatuz datuak bilatzen dituzten ikerketen garrantzia azpimarratu du. Beste azterketa-prozedura batzuk ere badirela ukatzen ez duten arren, inspirazioa etologikoa duten autoreek azterketa naturalistak egiten dituzte, hau da, gertakariak naturalki gertatzen diren bezalaxe behatzen saiatzen dira, azterketa dela eta gertakari horietan ahalik eta gutxien eragiteko ahalegina eginez eta aztertzen ari diren jokabide zehatzaren esanahiaren irudi orokorrak lortzen saiatuz, subjektuaren jokabide orokorraren testuinguruan eta egokitu behar duen ingurunean.



Azken aipatu dugun kezka hori Psikologia Ebolutiboan ikuspegi ekol  
ogikoa dutenek ere badute (Bronfenbrenner, 1979). Autore horiek joera  
naturalistako ikuspegi ebolutiboa defendatzen badute ere, okerra litzateke  
haurra behatzen duten guztiak, horregatik bakarrik, ikuspegi ekologistan  
kokatzea. Ikuspegi horrek kontzeptuzko hainbat baldintza eskatzen ditu.

① Baldintza horietan zenbait alderdi garrantzitsu nabarmen genitzake, hona:  
haurraren eta nerabearen beren garapenean zehar eragiten duten  
eraginen aniztasuna (azterketa ebolutibo askok eskainitako irudiaren aur-  
ka, amaz gain, aitak, aiton-amonek, irakasleek, lagunek eta ikaskideek...  
eragina izan dezakete haurraren) ② eragin horiek duten bi norantzako  
norabidea (haurrak besteek beregan duten eragina jasotzeaz gain, berak  
ere bere ingurukoengan eragiten du eta bere ezaugarriekin berekiko harre-  
manak ezartzeko moduak zehazten ditu) ③ zuzenean aurrean ez dauden bai-  
na aztergai eragina duten errealtateak kontuan hartzea (gurasoen lan-  
arazoak, amak etxetik kanpo lan egiten duen edo ez, gizarte-bitartekoek  
—hezkuntzak eta talde-aisialdirako lekuak edukitzeak adibidez— egiten  
dituzten ekarpenak edo egiten ez dituztenak...).

Ikuspegi kognitibo-ebolutiboa eta informazioa prozesatzearena aktibo  
eta emankorrenetakoak izan dira laurogeiko hamarkadan; informazioa  
prozesatzearen ikuspegia datza kognitibismoak azken urteetan izan duen  
gorakadaren sorreran (Rodrigo, 1983). Oraingoan ere ekarpenak kontzep-  
tuzkoak eta metodologikoak izan badira ere, azpimarratzekoa da ikuspegi  
horiei esker Psikologia Ebolutibo garaikideak oinarrizko prozesu kogniti-  
boak sakon aztertu dituela. Honako hauek adibidez: informazioa proesa-  
tzearen ikuspegiari dagokionez, pertzepzioa, arreta, memoria, arazoiketa,  
problema ebaztea...; ikuspegi kognitibo-ebolutiboari dagokionez, gizar-  
te-ingurune bateko garapenarenekin zerikusia duten prozesu kognitiboak  
aztertzea, hala nola, garapen morala, norberaren ezagutzea, besteak eza-  
gutzea eta gizartea ezagutzea. Ekarpen horiei esker gaur egun oinarrizko  
prozesu kognitiboen eboluzioaren askoz ere irudi osoagoa eta konplexua-  
goa dugu. Eboluzio horri eskainiko dizkiogu liburuki honen 3., 9. eta 15.  
kapitulua eta 24. kapituluaren erantzunak izango dugu.

Azkenik, ikuspegi historiko-kulturalak arrakasta handia izan du azken  
urteetan, bereziki Vygotskyren lanak birraurkitzearen ondorioz. Vygotsky  
1934an gazterik hil zen autore errusiarra dugu. Bere lanari ez zitzaion hu-  
rrango hamarkadetan arretarik eskaini, baina gaur egun garapen ugari eta  
aberatsen oinarri izan da (Vygotsky, 1978 eta Wertsch, 1985b). Mintzagai  
dugun ikuspegia fenomeno psikologikoen kontzepzio dialektikoaren on-  
dorioa da eta fenomeno horiek izan duten papera, historian eta kultural  
eragina izan duena, azpimarratzen du. Haurrak bere ingurukoengandik  
(batez ere helduengandik eta ikaskiderik garatuengandik) hainbat tresna  
eta estrategia psikologiko jasotzen ditu. Tresna eta estrategia horiek bar-  
neratze-prozesu baten bidez bereganatuko ditu. Gizarte-elkarreraginaren  
bidez haurrari iristen zaizkion bitarteko guztien artean —horiek eboluzio

historikotik eta lorpen kulturaletatik datoz— batez ere hizkuntza azpimarratu behar dugu, modu harrigarrian errealtatea islatzen duen eta errealtateaz hausnartzeko aukera eskaintzen duen tresna indartsua, estimulu eta erantzunen bitartekaria, norberaren jokabidea osatzeko eta arautzeko eraginkorra, jarduera planifikatzeko tresna, trukerako eta komunikaziorako prozedura aberats eta malgua. Ikuspegi honen arabera, haurren garapen psikologikoa helduekiko eta beste haur garatuagoekiko elkarreraginaren bidez gauzatzen da. Garapena sortzeko gizarte-prozesu horretan bi printzipio azpimarratu behar dira. Lehenengoaren arabera, psikismoa gizartearen mailatik gizabanakoaren mailara eratzen da, alderdi interpertsonaletik intrapertsonalera; adibidez, haurrak hizkuntza erabiltzen besteeikiko komunikazioan ikasten du hausnartzeko erabiltzen ikasi aurretik eta modu berean, bere jokabidea kanpotik kontrolatzen da bera bere burua kontrolatzeko gai izan baino lehen. Bigarren printzipioak dioenez, ikaskuntza eta gizarte-elkarreragin guztiak ez dakarte aurrerapen ebolutiboa. Haurra dagoen puntutik abiatuta haurra harantzago, bere kabuz iritsiko ez litzakeen edo ahalegin gehiagoren ondoren iritsiko litzatekeen lekura, eramateko gai diren ikaskuntza eta elkarreraginek bakarrik izango dute aurrerapena ondorio gisa; Vygotskyk sortutako adierazpenaren ildotik, garapen bihurtzen diren elkarreraginak haurren «berehalako garapenaren zona» deiturikoan kokatzen direnak dira. 5. kapituluan argituko dugu prozesu hori hizkuntzaren jabekuntzaz jarduterakoan.

Psikologia Ebolutiboak, orientabide teorikoei dagokienez, gaur egun duen egoera ezagutzeko egin dugun hurbilpen hau amaitzeko, garrantzitsua da azpimarratzea ekarpen horietako asko bateragarriak direla. Har dezagun adibidez, haurren arretaren garapena aztertu nahi duen ikertzaile baten kasua. Ziurrenik ikertzaile horrek erraz onartuko ditu honako hauek:

- haurrek gauza batzuei besteei baino arreta gehiago eskaintzea espeziearen garapenak giza garunean utzitako arrastoak argitzen du askotan (haur jaioberriek arreta handia eskaintzen diete giza ahotsari eta aurpegiari, eta beste espezie batzuetakoek, aldiz, arreta gehiago eskaintzen diete inguruneke elementuei, usainei edo ikus daitezkeen berariazko egiturei adibidez, 3. kapituluan aztertuko dugun gisan);
- laborategiko ikerketak arretaren garapenari buruzko informazio oso erabilgarria eskaini badezake ere, oso garrantzitsua da testuinguru naturalan, helduekiko eta ikaskide esanguratsuekiko elkarreraginean eta ohiko testuinguru fisikoan —testuinguru hori den bezalako da neurri handi batean zeharkako determinatzaileek, gurasoen hezkuntza-mailak eta lanbide-estatusak adibidez, haurren testuinguru hurbilean duten eraginaren ondorioz— arreta-prozesuak nola gertatzen diren eta garatzen diren ikertzea;
- arreta-prozesuak informazioa prozesatzeko eta jasotzeko berariazko modua duen garun batean gertatzen dira. Prozesu horiek ez dira ger-

takari isolatuak, aitzitik, memoria bezalako oinarrizko beste hainbat prozesurekin harreman estuak dituzte. Egoera zehatz bateko arretajarduera zereginaren aldagaiek (hau da, egoerak planteatzen dituen eskaera edo baldintza kognitiboe) eta eskaera horiei aurre egiteko haurrak duen gaitasunak edo gaitasun-ezak asko determinatzen dute;

—giza garunak, filogenetikoki zehaztutako lehentasunen ondorioz, estimulu batzuekiko besteekiko baino lehentasun handiago badu ere, ikasi egin daiteke arreta jartzen; ikaskuntza hori ez da ezerezean gertatzen, ezin da behar bezala argitu haurra isolaturik (bera eta gauzak bakarrik) hartzen bada kontuan. Beste hainbaten antzera ikaskuntza hau ere gizarteak zehazten eta gidatzen du. Helduak izango dira bitartekari. Heldu horiek aukeratuko dituzte bereziki esanguratsuak diren informazio-zatiak eta helduek jakingo dute haurrari informazio horrekiko arreta nola piztu. Helduek ezarriko dizkiete aukeratutako informazio-zatiei hitzezko etiketak. Haurrari eskatzen dioten arreta haurraren bitartekoen arabera modulatzeko gai izango dira, baina haurrei bitarteko horiek erabiltzeko eskatzeaz gain, beste konplexuago batzuez jabetzea ere eskatuko diete helduek. Horietaz jabetzeko oso garrantzitsua izango da elkarreraginean helduak abian jarritako bitartekoak barneratzeko prozesua.

Garapenaren kontzeptua zabaldu eta malgutu ahala, Psikologia Ebolutibo garaikidearen ezaugarri nagusia kontzeptuzko pluralismoa dela esan dezakegu, izan ere, bateragarri diren ikuspuntuak barne hartzen ditu. Ikuspuntu horiek ez daude elkarrekiko lehian besteei gailentzeko. Aitzitik, elkarri egindako ekarpenak aberasten saiatzen dira ekarpen horiek garrantzitsuen diren eremuetan. Pluralismo hori Psikologia Ebolutiboaren heldutasun-sintomatizat har daiteke. Psikologia Ebolutiboa bera ere eboluzionatzen ari da eta bere planteamenduak etorkizunean ere garatuz eta zabalduz joango dira.

## 2. Garapena kontzeptualizatzeko oinarrizko elementuak

Garapen psikologikoaren prozesua zer den eta bere ezaugarri orokorretako batzuk zein diren jakin nahian bagabiltza, asko dira hausnarketa-gai gisa aukera ditzakegun auziak. Hurrengo orrialdeetan honako lan hauei helduko diegu nagusiki: herentzia-ingurunearen auzia eta kanalizazioaren kontzeptua aztertzeari, garapena estadioen arabera deskribatzea zenbateraino egokia den asmatu nahian gogoeta egiteari, nahiko zabaldua dauden lau topiko ebolutibo aztertzeari eta testuinguruan eta elkarreraginean oinarritutako garapenaren aldeko hainbat ohar orokor egiteari.

## 2.1. Herentzia eta ingurunea garapenaren determinatzaile gisa

Herentziak eta inguruneak hurrenez hurren garapena determinatzerakoan duten eraginari buruzko auzia interesgarria da ikuspegi zorrotz eta eksklusibista batetik planteatzeari utzi zitzaionetik. Batetik, innatistak genituen, garapen psikologikoa geneetan aurretik irudikatzen zela defendatzen zutenak, eta bestetik, ambientalistak zebiltzan, determinazio genetikoa baztertzen zutenak eta determinazioaren pisu guztia giroan ezartzen zutenak. Horien arteko gatazka antzua zen. Dualismoak ezaugarritu zuen aldia, jokabidearen zein portzentaia zegokion herentziari eta zein giroari eztabaidatzen zen garaia, ere ez zen oso emankorra izan antza. Portzentaia horiek determinatzeko oso fidagarriak ez ziren eta oinarri teoriko eskasa zuten formulak erabiltzen ziren. Matematikaren zorrotasuna agerikoa besterik ez zen eta, ondorioz, interesik eta garrantzirik gabeko ondorioak besterik ez ziren lortzen.

Gaur egun gauzak oso bestela planteatzen dira. Gure sen onari jarraituz, gure portaerari eta garapenari alderdi genetikoek nahiz ingurunearen alderdiek eragiten dietela begi-bistakoa da. Horrenbestez, arazo nagusia batzuk eta besteak harremanetan nola jartzen diren jakitean datza batetik, eta garapen uneren edo eduki ebolutiboren batean herentziak emandakoaren eta ingurunearekiko kontaktuan jasotakoaren arteko elkarreraginean bietakoren bat determinatzaileagoa den zehaztean bestetik.

Hori zehazteko aurrerago aipatutako fokatzeko etologikoetatik eratorritako ekarpen batera jotzea interesgarria izan liteke. Kontuan hartzeko ekarpena honako hau litzateke: jaiotzatik daukagunaren eta ondoren lortu dugunaren arteko bereizketa faltsua da neurri batean espeziearen eboluzioaren argitara begiratzen badugu. Gure espezieko haurren artean gaur egun jaiotzetikoa dena, jaiotzetikoa da filogenesiaren uneren batean eskuratu egin zelako. Ziurrenik eskuratze hori oso garrantzitsua izango zen eta horregatik gelditu zen grabatua espeziearen geneetan. Bestalde, subjektu jakin baten duenaz jabetu ahal izateko, jabetze hori ahalbidetuko dioten jaiotzetiko tresnak izan behar ditu.

Horretatik abiatuta, aztergai dugun gaiari dagokionean oso interesgarria den bereizketa bat, gure kode genetikoaren edukien ingurukoa, ondoriozta daiteke. Kode horretan eduki «itxi» batzuk eta eduki «ireki» batzuk bereiz daitezke (Jacob, 1970). Eduki itxiak itxiak dira banan-banako esperimentuaren ondorioz ezin direlako aldatu; espezie gisa definitzen gaituzten edukiak dira eta espezie-mailan bakarrik izan ditzakete alterazioak, oso prozesu filogenetiko luzeen ondorioz. Gure ezaugarri morfologikoak (garun bat, bi belarri, bi horien artean kokatutako sudurra, birrikak...) eta gure heltze-egutegia (hortzik gabe jaiotzen gara, ondoren behin-behineko hortzak jaiotzen zaizkigu eta gero horien orde zorionez askoz gehiago irauten duten hortzak ateratzen zaizkigu; pubertaroak haur-gorputza gorputz heldu bihurtzen du; zahartzaroan hainbat funtzio biologiko hondatu egiten

dira...) gure espezieari dagozkion ezaugarri morfologikoak eta heltze-egutegia dira eta gizabanako normalek, giza espeziearen ordezkari garen gizaki gehienok, ezin ditugu beste nolabaitekoak eduki.

Gure kode genetikoaren osagai irekiek zerikusi gutxiago dute eduki zehatzekin eta gehiago garatzeko eta jabetzeko aukerekin. Aukera horiek kodearen zati itxian ezarritakoari esker ditugu, baina ez daude kode horretan eduki gisa, ahalmen gisa baizik. Horixe gertatzen da, adibidez, <sup>1</sup> hizkuntzaren alorrean: espeziearen eboluzioak gure organismoan hizkuntzaz jabetzea ahalbidetzen diguten ezaugarriak utzi ditu, garuna eta fonazio-organoak adibidez. Ezaugarri horiek dira, nolabait esateko, espeziearen ondarea eta horiei esker gizaki normal guztiek ikas dezakegu hitz egiten. Kodearen zati itxiak ezartzen du, halaber, heltze-egutegi jakin bat: saiatu arren, bi hilabeteko haur batek ezin du gizartean esanguratsu diren edukiak transmititzeko gai den hizkuntza artikulatua ekoiztu. Heltze-oinarriak prest dauden unetik aurrera, hizkuntzaz jabetzea haurraren eta bere gizarte-ingurunearen arteko elkarreraginaren arabera izango da: haur batek gaztelania, errusiera edo arabiera ikastea, hizkuntzaz heltze-prozesuak horretarako aukera eskaini bezain laster jabetzea edo beranduago jabetzea, aberastasun lexiko-semantiko handiagoa edo txikiagoa beretzea, baita eleantiz izatea eta gutxi gorabehera aldi berean gaztelania, errusiera eta arabiera ikastea ere; hori guztia hizkuntza gure kode genetikoan eduki zehatz gisa (begien kolorea bezala) definiturik egon beharrean garapen-aukera gisa definiturik dagoelako gerta daiteke. Antzeko zerbait esan genezake oso bestelakoa den beste eduki bati buruz, <sup>2</sup> autoestimazioari buruz, hain zuzen ere. Kode genetikoaren zati itxiak ezartzen digun garunari esker pentsatu eta sentitu egin dezakegu eta beste pertsonen, gauzei eta geure buruei buruzko pentsamenduak eta sentimenduak izan ditzakegu. Baina geure buruekin gustura egotea edo ez, gure idealen eta lorpenen arteko balantzea egiterakoan gogotsu sentitzea edo ez, ez du, jakina, espeziearen eboluzioak determinatzen. Aitzitik, gure historia pertsonalak determinatzen du, hezten eta garatzen garen giza inguruaren arabera. Dena dela, zuhurra litzateke bularreko haur bati bere autoestimazioa zer moduzkoa den ez galdetzea, oraingoan ere kode genetikoaren zati itxiak determinatzen duen heltze-egutegia gailentzen baita.

Bada, baieztatu dezakegu prozesu psikologikoak espezie gisa definitzen gaituzten geneek ahalbidetzen dituztela, jabetze bakoitza zein unetan gerta daitekeen zehazten duen heltze-egutegi batek mugatzen dituela eta, azkenik, prozesu psikologiko horiek, zehazterakoan, pertsonen eta beren ingurunearen arteko elkarreraginek determinatzen dituztela.

Hausnarketa horiek sakontzeko beharrezkoa da kanalizazioaren kontzeptua aintzat hartzea (McCall, 1981). Kontzeptu horren bidez ideia honi egin nahi zaio erreferentzia: gizakiok zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta antzekoagoak gara. Oso testuinguru desberdinetan hazitako haurren garapen psikologikoa erkatzen duten kulturaz haraindiko ikerketek egiaz-

tatu dutenez, haurren egutegi psikologikoa kultura guztietan oso antzekoa bada ere, lehen haurtzarotik urrundu ahala, kulturak eragindako desberdintasunak gero eta handiagoak dira. Aurreko eztabaidarekin lotuz, horrek esan nahi du gure garapenaren lehen zatiak ondorengoak baino itxiagoak daudela gure kode genetikoan, heltze-alderdiei dagokienean behintzat. Gauzak horrela izateak badu, noski, logika filogenetiko bat: espeziearen biziraupena hobeto ziurtatuko da dependentzia eta babes-eza handiena duten garaian espezieko kide guztiei gutxieneko ebolutibo batzuk bermatuz gero; badirudi haur jaioberriak gai izango liratekeela gutxieneko garapen-maila bat lortzeko inguruneak gutxieneko estimulazio bat eskaintzen badie. Izan ere, oso estimulazio gutxi testuinguruetan hazten diren haurrek oinarrizko maila horiek lortzen dituzte. Hori dela eta, garapen goiztiarra oso kanalizatuta dagoela esan ohi da: kode genetikoaren zati itxiak determinatzen dituen heltze-prozesuek gaitasunak sorrarazten dituzte eta gaitasun horiek garapen bihurtzen dira inguruneak gutxieneko estimulazioa ematen badie. Inguruneak eman behar dien gutxieneko estimulazio hori nolabait ere helduen portaerek bermatzen dute eta portaera horiek ere agian determinazio filogenetiko bat izango dute: haurrek heldu normalak erakartzen dituzte, helduek haurrak babesteko eta laguntzeko joera izaten dute, helduen estimulazioen ondorioz haurrek irribarre egiten dutenean adorea hartzen dute...

Goiago adierazi dugunak ez du esan nahi garapen goiztiarra eta estimulazioa independenteak direnik. Behin eta berriz aipatu dugun gisan, gutxieneko estimulazioek gutxieneko garapena bermatzen dute. Bestalde, berme hori haurraren bizitzako lehenengo hilabetei bakarrik dagokie, urte eta erdi edo bi urte arteko aldiari, eta garapenaren oinarrizko egutegia dei genezakeenari bakarrik eragiten dio. Gutxieneko estimulazio linguistikoa eskaintzen dien ingurune batean bizi diren haur guztiek lehenengo hitzak ahoskatu ahal izateko beharrezko baldintzak izango dituzte urte bete dutenean: jakina, hizkuntzaren edukia (adibidez, ulertzeko eta mintzatzeko gaitasun gisa neurtutako aberastasun lexikoa) ez dago kanalizatuta. Gutxieneko ezaugarri normalak dituen giza ingurune batean hazitako haur normal guztiak gai izango dira atxikimendu-harremanak ezartzeko bost edo sei hilabete dituztenean, nahiz eta, jakina, atxikimendu-harremanen kalitatea, intentsitatea eta aniztasuna ez egon kanalizatuta. Bai atxikimenduan, bai hizkuntzan, bai kontuan hartzen den psikologiaren beste alderdien batean, hezkuntzaren garrantzia erabakitzailea izango da haurraren bizitzaren lehen unetik. Horrezaz gain, lehenengo unetik ikus daitezkeen arren, beren inguruneak eskaintzen dien estimulazioaren aberastasunaren ondorioz, haur batzuen eta besteen arteko aldeak gero eta handiagoak izango dira. Garapena zenbat eta gutxiago kanalizatutakoa izan, orduan eta sentsibilitate handiagoa izango du ingurunearen estimulazioaren aberastasunarekiko edo txirotasunarekiko. 25. kapituluaren berriz ere eztabaidatuko dugu gai honen inguruan, baita sakonago aztertuko ere.

Ikus daitekeenez, herentziaren eta ingurunearen arteko harremanak ez dira inoiz baztergarriak eta ez dute portzentaiekin zerikusirik. Horien arteko harremanak osagarritasunak eta kontuan hartzen den alderdiaren eta eboluzioaren unearen araberrako pisu diferentzialak markatutakoak dira.

Azken iruzkin bat egingo dugu gure ustez ingurunea zer den adierazteko. Adierazle horrek, oro har, pertsona inguratzen duen gizarte-inguruneari eta ingurune materialari egiten dio erreferentzia. Garapen psikologikoaren determinazioari dagokionez, badirudi psikologo ebolutiboen artean adostasun handia dagoela orain dela urte askotxo Wallonek, orientabide soziogenetikoa duen Frantziako psikologo ebolutiboak, adierazitako gertakariaren inguruan: garapenari dagokionean ingurunerik garrantzitsuena giza ingurunea da, gizarte-ingurunea, eta ez ingurune materiala (Wallon, 1951). Horrek ez du esan nahi objektuak eta estimuluak ez direnik garrantzitsuak; hurrek horiekin ezartzen dituzten harremanetan neurri handi batean helduen eskuhartzea dela bitartekari esan nahi du. Edozein objekturen alderdirik interesgarriena ez datza objektuan bertan, helduak eta haurrak horien inguruan izaten duten elkarreraginean baizik.

## 2.2. Estadioen arazoa

Aurreko eztabaida horrek badu beste gai desberdin baten inguruko ondorio bat, Psikologia Ebolutiboan klasikoa dena eta azaldu berri dugunarekin zerikusia duena. Honako <sup>erria</sup> hain zuzen: garapen ebolutiboa estadiotan oinarrituz deskribatzea erabilgarria eta egokia den edo ez. Aurrerago esan dugunez, prozesu ebolutiboaren deskribapen organismiko zaharrak etapa edo estadio ebolutiboen hasierak eta amaierak ezaugarritzen dituzten hito ebolutiboen bidez artikulatzen ziren eta horien sekuentzia unibertsala zela pentsatzen zuten. Horrenbestez, ez zuen inguruneak zerikusi handirik horretan. Oro har, gaur egun bizitzako lehenengo urteetatik zenbat eta gertuago egon estadiotan oinarritutako deskribapenak orduan eta egokiagoak iruditzen zaizkigula esan dezakegu. Hori kanalizazio-prozesuaren eta estadio batetik besterako pausoek heltze-aurrerapenekin —gogoan izan horiek kode genetikoaren zati itxiak determinatzen dituela— zerikusia izatearen ondorio da. Halaber, helduek haurrak tratatzeko eta estimulatzeko dituzten kulturaz haraindiko modu konstanteen ondorio ere bada.

Lehenengo hilabeteetan ohikoak dira aukera berdinetarako sarbidea ahalbidetzen duten heltze-aurrerapenak. Horren adierazle dugu zein azkar lortzen dituzten hurrek, jaiotzako ezintasunetik abiatuta, gero eta handiagoak diren gaitasun motrizak, linguistikoak, sozialak... bizitzako lehenengo urtean edo urte eta erdian. Baina hortik aurrera heltze-aurrerapen horiek mantsotu egiten dira. Aldaketa handiak gero eta urriagoak izango dira eta gertatzen direnean gero eta bakanagoak dira. Hori esatea inguruneak gero eta garrantzi handiago hartzen duela esatearen parekoa da. Horren-

bestez, haur batzuen eta besteen arteko aldeak handitu egiten dira inguru-nearen determinazioarekiko gero eta sentsibilitate handiagoa dutelako. Hori gertatzen denean, haur batzuek eta besteek oso garapen-profil desberdinak izango dituzte eta gero eta zailagoa izango da garapena estadio unibertsalen bidez deskribatzea.

Hala ere, kultura bereko haur batzuen eta besteen garapen-profil orokorrean antz handiagoa izango dute kultura desberdinetako haurren artekoek baino. Bizitza-zikloaren ikuspegia duten psikologo ebolutiboek adierazi duten gisan, adinarekin zerikusia duten eragin biologikoez gain (horiek izaera normatiboa dute adin horretako gizaki guztiengan dutelako eragina), badira talde kulturalarekin eta historiko-generazionalarekin zerikusia duten eragin normatiboak. Mendebaldeko haurrek, adibidez, derrigorrezko hezkuntzaren eragina izango dute sei urterekin eta hori elementu homogeneizatzaile garrantzitsua izango da. Laurogeita hamarreko hamarkadako mendebaldeko haurrek —bereziki hiritarrek, baina ez horiek bakarrik— orain arte ez bezalako eragina jasoko dute komunikazio-sistema eta -kodeetatik (bideojolasak, ordenadoreak). Horiek, jakina, eragina izango dute sinbolo abstraktuekin moldatzen ikasteko.

Estadioaren kontzeptuak oraindik ere badu Psikologia Ebolutiboan nolabaiteko erabilgarritasuna. Baina, gaur egun, ez dugu orain hamarkada bat psikologo ebolutiboek erabiltzen zuten bezain esanahi handizalearekin erabiltzen; kontzeptuak dituen mugak zein diren ohartu gara eta deskribapenerako baliabide bezala erabiltzen dugu batez ere, garapenean gertatzen diren jauzi koalitatibo handietako batzuek hitz egiteko.

### 2.3. *Lau topiko ebolutibo zahar*

Giza bizitzaren zikloa banatzeko erabiltzen diren lau aldi nagusiak (haurtzarora, nerabezarora, helduarora eta zahartzarora) hartzen baditugu, ikusiko dugu, orain dela gutxi arte horietako aldi bakoitzak bere topikoa zuela. Haurtzaroko esperientziek eragin determinatzailea zutela eta ondorengo garapena itxuratzen zutela uste zen. Nerabezarora aldaketa bortitzen eta mutazio psikologiko handien garaia zela uste zen. Helduarora, aldiz, egonkortasuna eta aldaketa handirik gabeko garaia adierazten zuen. Zahartzarora prozesu psikologikoen narriaduraren eta pertsona batzuen eta besteen arteko aldeak gero eta txikiagoak izatearen sinonimo zen (Palacios, 1984c).

Topiko horiek ez diraite egun. Sen ona duen inor ez litzateke ausartuko *haurtzaroren* garrantzia ukatzen eta inork ez luke zalantzan jarriko haurtzarora zehar ahalik eta estimulazio onenak eta aberatsenak ematea oso interesgarria dela. Baina gauza bat da haurtzarora gertatzen dena garrantzitsua dela onartzea eta oso bestelako zerbait da hori itzulezina dela pentsatzea. Zorionez, giza psikismoa lehen uste zena baino dezente plastikoa dela dirudi eta ugariak dira Psikologia Ebolutiboan egoera zailetan



hazi eta gero baldintzak onerako egonkortu direnean, aurkako baldintzez betetako aurretiazko historia gainditzea lortu duten hurrei buruzko adibideak. Badirudi baieztapen hori baliagarria dela alderdi intelektualari, emozionalari eta sozialari dagokienean. Baliagarria da, jakina, aurkako norantzan ere: haurtzaro zorionsua izateak ez du betirako zoriona bermatzen.

Halaber, horrek guztiak zalantzan jartzen du neurri batean *aldi kritikoen* nozio zaharra, ikaskuntza jakin batzuk, eraginkorrak izateko, garai ebolutibo jakin batean egin behar direla dioena. Izan ere, aldi horretan ikasten ez badira, ez dira inoiz ikasiko edo zailtasun handiagoak izango dira horiez jabetzeko. Zalantzarik gabe, jabetze jakin batzuetarako badira une egoki batzuk, heltze-egutegia eskaintzen ari den aukerekin lotutako uneak, eta une horietan haur gehienak direlako horiez jabetzen dira. Ziurrenik arrazoizkoa izango litzateke pentsatzea hurrek beren haurtzaroan zehar (baita ondorengo urteetan ere) transformatzeko gaitasun handia dutela. Agian garapenerako determinatzaileen izango diren eraginak ez dira goiztiarrenak izango, egonkorrenak baizik. Kasu gehienetan gertatzen den gisan, goiztiarrenak izan ohi dira egonkorrenak. Adibidez, lehenengo hila-beteetan neska batek ikasteko eta arakatzeko duen motibazioa piztu bada, ziurrenik motibazio hori piztu duten pertsonak aurrerantzean ere norabide berean motibatuko dute. Baina lehenengo urteetan eragin onuragarri hori jaso ez badu, agian beranduago jaso eta baliatu ahal izango du. Baina, jakina, hori egin ahal izateko, eragin horrek ez du izan behar noizbehinkakoa edo une batekoa, egonkorra eta iraunkorra baizik.

*Nerabezaroa* aldaketa eta transformazio psikologiko handien garaia dela dioen topikoari dagokionez, topiko horren aurkako arrazoiketa errazagoa izan daiteke eta nahikoa izango da nerabezaroaren hasieran eta bukaeran pertsona bera aztertuz egin diren ikerketek uste hori ez dutela baieztatu esatea. 20. kapituluan ikusi ahal izango dugunez, nerabe atseka-betua eta bortizki aldatzen dena nerabe-mota bat da eta agian ez da izango, gainera, ohikoena. Nerabezaroa benetan aldaketen garaia da, baina aldaketa hori ez da nahitaez haustura eta iraganarekiko eten gisa gertatuko. Nerabe bakoitzaren aurretiazko historia ebolutiboak, irauten duten haurtzaroko eraginekin batera eta hazkuntzako testuinguru berrien ondorioz sortzen diren eragin berriekin batera, eboluzio bat edo bestea, aurreko ibilbide ebolutibotik gertuago edo urrunago egongo dena, baldintzatuko du. Dena dela, oro har, badirudi nerabe askorentzat nerabezaroa jarraitasunari eta ez etenari lotzen zaiola. Horrek, jakina, ez du esan nahi aldaketarik ez dela izango, baizik eta aldaketa horiek bat etorriko direla aurreko historia ebolutiboaren ildoarekin.

*Helduaroari* (helduaroa egonkortasun psikologikoaren eta aldaketaezaren sinonimo) eta zahartzaroari (zahartzaroa narriaduraren eta gizakien arteko desberdintasunak desagertzearen sinonimo gisa) buruzko topikoak zehatzago azalduko ditugu 24. kapituluan. Oraingoz nahikoa izango da ikerketa ebolutiboan ondorioek topiko horiek ez dituztela baieztatu esatea.

Helduaroan gauza garrantzitsu asko gertatzen dira (lan munduan sartzea, gehienetan egonkorragoak izan ohi diren emoziozko harremanak, asko aita edo ama izaten dira...) eta aldaketen aurrean geldirik dagoen eta aldaketa horien eragina bere trebetasun eta gaitasunetan, nork bere buruz duen irudian, pertsonekin dituen harremanetan eta abarretan sumatzen ez duen helduaren deskribapenak ez du errealismo psikologikorik izango.

*Zahartzaroari* dagokionez, zahartzarora narriadura orokorraren garai gisa definitzea ere ez da errealista izango, garunak gutxieneko osotasun-maila bat duen artean behintzat. Zenbait trebetasun kognitibok okerrera egiten dutela eta batzuk helduarokoekin erkatuz gero gutxi aldatzen direla, eta zenbaitetan hobetu ere egiten direla, esan dezakegu. Antzeko zerbait esan genezake psikologiaren beste hainbat eremuri buruz ere. Pertsonak egokitzeko duen gaitasunari eusten badio, aldaketari eta garapenari irekita egongo da. Gainerakoan, gaixoen hainbat portaera berdintzeko joera duten gaixotasunak sortu bitartean behintzat (sortzen badira, noski), zahartzaroran pertsonen arteko aldeak lehen adinakoak izateaz gain, alde horiek handitu ere egin daitezke. Hori guztiz logikoa da, lehendik metatuta duten historia ebolutiboak batzuen eta besteen arteko aldeak sortzen jarraituko baitu.

#### 2.4. *Prozesu ebolutiboaren ikuspegia, testuinguruan eta elkarreraginean oinarritutakoa*

Aurreko eztabaida erraz jo genezake amaitutzat hainbat iritzi orokor aintzat hartuz. Iritzi horietan testuinguruan eta elkarreraginean oinarritutako ikuspegiaren hainbat elementu garrantzitsu atzeman daitezke. Baita, zenbait *ñabardura* kontuan hartuz, kontinuisismo ebolutiboaren aldeko jarrerera ere.

Testuinguruan eta elkarreraginean oinarritutako ikuspegia defendatzea bat dator aurreko eztabaidan eskaini ditugun osagaiekin eta garapen psikologikoa neurri handi batean haurrak bere inguruan dituen pertsonekin ezartzen dituen harreman egonkorren barne-irudia dela dioen ideiarekin. Baina, testuinguruan oinarritutako ikuspegi hau oso urrun dago oinarritzko ambientalismo inuzentetik, izan ere, ambientalismo horrek haurrak duen *guztia* ikaskuntza-prozesuen ondorio zela aldarrikatzen zuen. Hasieran, arbela ez dago Lockek uste zuen bezain zuri (ikus adibidez 3. eta 6. kapituluetan emandako datuak). Badugu, gainera, mugapenak ezartzen eta hainbat aukera zabaltzen dituen heltze-egutegi bat. Bestalde, gizarte-elkarreragin guztiek ez dute garapena sustatzen. Une horretan dagoen puntutik abiatu eta, laguntza egokiarekin, haurrari aurreraxeago joatea ahalbidetzen dioten elkarreraginek bakarrik sustatuko dute garapena.

Aipatu berri dugunak, argi eta garbi azpimarratzen du garapenean *hezkuntzak* duen zeregin garrantzitsua. Hezkuntza hori familiakoa, eskolakoa edo berdinegandik jasotakoa izan daiteke. Hezkuntza-prozesuak gizakien

garapena moldatzen duten eragin-multzoak dira. Horretarako eragin horiek espeziearen funtsezko ezaugarrietatik eta ezaugarri horietako bat den heltze-egutegitik abiatuko dira. Hezkuntza-prozesuek emandako garapenetik abiatuta pertsona harantzago eramaten dute, hau da, ikaskuntzaren bidez pertsonaren garapena sustatzen dute (ikus 25. kapitulua garapenaren eta hezkuntzaren arteko harremanei buruzko xehetasun gehiago izateko).

Kultur talde eta garai historiko bakoitzak bere erara antolatzen ditu prozesu horiek eta heziketa jasotzeko eta garatzeko aukera desberdinak eskaintzen ditu. Kulturaren eta gizabanakoaren artean eragile sozializatzaileek egiten duten bitartekaritza ez da, bada, ahistorikoa eta atemporala izango, une eta testuinguru bakoitzak erabat baldintzatutakoa baizik. Horrexegatik, zaila da, ikuspegi horretatik, izaera unibertsala duten garapen prozesuak azpimarratzea, izan ere, hori ez dator bat testuinguruan eta elkarreraginean oinarritutako ikuspegiarekin, ikuspegi horrek garapena itxuratzten duten elkarreraginak testuinguru batek baldintzatutakoak direla uste baitu. Elkarreragin horiek baldintzatutakoak izango dira, bai hurbiletik (adibidez, gurasoei eragiten dieten bizi-baldintzak), bai urrutitik (kultura eta une historikoa adibidez).

Testuinguruan eta elkarreraginean oinarritutako garapenaren ikuspegi hau jarraitasun ebolutiboaren aldeko posizio nabarmenak osatzen du. Baina jarraitasuna errealtate bat, eta ez kontzeptuzko baldintza bat, dela ulertuta. *Oro har gertatzen denez*, eskolaurreko urteetan independentzia estimulatzen duten gurasoek, gauza bera egingo dute handik bost urtera eta bi urteko alaba oker eta inkontzienteki hezten duten gurasoek ere halaxe egingo dute handik hamabost urtera ere. Horrenbestez, eraginen jarraitasuna da garapenaren jarraitasunaren arrazoia. Baina ingurunean jarraitasunik ez bada, psikismoa bada aldatetara egokitu ahal izateko behar bezain plastikoa.

Hori horrela izatea, eskolarentzako aukera eta erronka gisa ikusi behar-ko genuke, haurra hazi den familiaren testuinguruari lotutako hutsuneak konpentsatzeko gai izango diren eragin positiboak sortzeko aukera —baita erantzukizuna ere— eskaintzen baitio. Azken batean, orrialde hauetan eskaini dugun garapenaren ikuspegiak baditu bere abantailak: ez da kontzeptzio ebolutibo klasikoak bezain murriztailea eta malguagoa da. Horrezaz gain, ikuspegi baikor bat ere eskaintzen digu, izan ere, ikuspegi horren arabera, haurrak une horretan duen garapenetik abiatu eta une bakoitzean bere garapen-mailak ahalbidetzen dizkion mailarik altuenak lortzen laguntzeko gaitasuna duten hezkuntza-testuinguruek garapenean eragiteko aukera izango dute.

Jakina, guk adierazitakoa gauzak fokatzeko eta prozesu ebolutiboak eta garapenaren eta hezkuntzaren arteko harremanak ulertzeko modu bat da. Ikuspegi hau Psikologia Ebolutiboaren barruan, tradizio historiko-kulturalean eta soziogenetikoan kokatzen da. Ikuspegi horrek abantaila bat badu: gauzak ikusteko modu horrekin bateragarri diren ikerketadatu ugari

barne hartzea ahalbidetzen du. Baina hainbat ikuspegiren arteko bat da, eta aurreko orrialdeetan barrena erakusten saiatu garen gisan, Psikologia Ebolutibo garaikidearen ezaugarria fokatze-aniztasuna da eta ez fokatze horietako bat edo bestea gailentzea. Bestalde, ikerketa ebolutiboa oso azkar doanez eta ekarpenak oso ugariak direnez, ez litzateke harritzekoa izango gaur egun ikertzaile askok onartzen duten ikuspegia aldatu behar izatea beste ikuspegiren batetik gertakari berriei buruz aritzeko.

### 3. Ikerketa ebolutiborako oinarrizko diseinuak

Psikologo ebolutiboek gainerako psikologoek dituzten adina baliabide metodologiko dituzte: behaketa, hainbat motatako saiakuntzak, norbanako kasuen azterketa luzea eta abar. Ikerketa ebolutiboaren berariazko ezaugarria da baliabide horiek garapen-prozesuekiko sentsibilitatea duten ikerketa-diseinuetan, hau da, denboran zehar gertatzen diren aldaketekiko sentsibilitatea dutenetan erabiltzea. Ikerketa-diseinu ebolutibo klasikoek luzeak eta zeharkakoak dira. Beranduago diseinu sekuentzialak asmatu ziren (Martínez, 1983; Vega, 1983). Ondoren hitz egingo dugu, labur bada ere, horietako bakoitzari buruz eta beren alde onak eta mugapenak azpimarratuko ditugu.

Har beza irakurle horrek une batez ikerketa ebolutibo bat egiteko erantzukizuna. Eman dezagun honako gai simple hau hartu nahi duzula aztergai: haurrek zenbat hitz berri gehitzen dieten beren lexikoei hamabi hilabete dituztenetik bost urte betetzen dituzten arte. Eman dezagun, halaber, informazioa jasotzeko prozedura fidagarri bat duzula (adibidez, egunaren une jakin batzuetan aste batean zehar haurrak esaten duen guztia grabatzea; edo gurasoek bai edo ez erantzunez osatutako haurrak erabiltzen dituen hitzei buruzko txostena; edo erregistro zuzenen eta gurasoen txostenen arteko konbinaketa bat). Nola moldatuko zinateke urte bete eta bost urte artean lexikoak izan duen eboluzioa aztertzeke?

Ziurrenik irakurleari, psikologo ebolutiboek orain dela urte asko pentsatu zuten antzera, ikerketa ebolutibo bat antolatzeke modu egokia iruditu zaio haur bat edo haur-talde bat aztertzea behar adina urtetan zehar. Gure adibidearen kasuan urte beteko haurren lagin bat har genezake. Ondoren lagin hori bera aztertuko genuke bi, hiru, lau eta bost urte dituztenean. Haur horiek berak aztertuko ditugu denboran zehar. Hori da ikerketa-rako *luzerako diseinua* deitzen duguna.

Luzerako diseinuen badute funtsezko abantaila bat: subjektu baten edo subjektu-talde baten ibilbide ebolutiboa ezartzea ahalbidetzen dute. Horren bidez, aldaketa intraindividualak eta desberdintasun interindibidualak aztertzeke aukera izango dugu (adibidez, gure laginean gizarte-klase desberdinetako haurrak baditugu, azpialde batzuen eta besteen arteko aldeak arakatu ahal izango ditugu). Diseinu honek beste abantaila bat ere badu.

Beti subjektu berak aztertzen direnez, ez dago adin-taldeen arteko homegeneotasunaren inguruko arazorik, datuak hartzen diren lehen unean eta hurrengoetan haurrak berdinak direlako (beren adina izan ezik). Baina gisa honetako diseinuek badituzte hainbat arazo: garesti samarrak izaten dira, ikerketa urteetan zehar luzatzea eskatzen baitute eta hori bera ere oztopo da; askotan «hilkortasun esperimentalak» —urte batetik bestera subjektuak galdu egiten dira, adibidez, helbidea aldatu dutela-eta ezin direnean topatu— arazoak sortzen ditu; datuak hartzen diren bakoitzean proba estandarrak erabiltzen badira, neurketa errepikatuen arazoa sortuko da (hau da, subjektua test-mota hori erabiltzen aditu bihurtuko da).

Gauzak planteatzeko modu alternatibo bat *zeharkako diseinu* batera jotzea izan liteke. Zeharkako diseinua une jakin batean interesatzen zaizkigun adin-multzoetako haur-talde bana azertzean datza. Gure adibidearen kasuan urte bete duten hurrek osatutako talde bat har genezake eta beren lexikoa neurtu. Horixe bera egin beharko genuke bi urteko haurren talde batekin, hiru urtekoek osatutako beste batekin eta abar. Guk aukeratu ditugun urte beteko haurrak urte beteko haurren ordezkari onak direla suposatuko dugu. Baita gainerako adinetako haurrak ere.

Luzerako diseinuarekin erkatuz gero, zeharkako diseinu baten begibistako abantailak azkartasuna eta ekonomia dira. Aste gutxi batzuetan gure adibidearen kasuan bost urte beharko lituzkeen ikerketa bat egin daiteke. Bada, ez da hain planteamendu garestia eta neketsua. Baina azkartasuna eta ekonomia alde batera utzita, zeharkako diseinuek badute hainbat arazo garrantzitsu. Batetik, gizaki bakoitzak bere baitan izan dituen aldaketan berri ez digute emango, subjektuak behin bakarrik aztertzen baitira. Horrenbestez, ezingo ditugu zehaztu ibilbide ebolutiboak, pertsona baten eboluzio erreala islatzen dutenak. Aitzitik, ondorioztatu egin beharko dugu. Horretarako haur batek hiru eta lau urte artean izan dezakeen eboluzioa eta gure lagineko hiru eta lau urteko hurrek osatutako taldeetakoek izan dutena berdinak izango direla suposatuko dugu. Gainera, homegeneotasun-arazoak ere sor daitezke adin bakoitzerako erabilitako laginen artean; luzerako diseinuek aldiz, ez dute gisa horretako arazorik, subjektu berak aztertzen baitira. Hori guztia konplexuagoa da zeharkako diseinuen kasuan: lau urteko haurren laginekoak, adibidez, nabarmenago izan daitezke erdi-mailako gizarte-klasekoak eta bost urteko haurren multzokoak beheragoko gizarte-klase batekoak izan daitezke. Hori dela eta, laginak ez dira guztiz konparagarriak izango.

Bai luzerako diseinuek, bai zeharkakoek badute beste akats bat: ez dute aldaketa historikoekiko sentsibilitaterik eta hori dela eta, belaunaldi bati dagokionean baliagarri dena beste bati dagokionean agian ez da baliagarri izango. Har dezagun oraingoan beste adibide bat. Lerro hauek idazten ari garen unean Hezkuntza eta Zientzia Ministeritza hezkuntza-sistema aldatzeko erreforma-proiektu bat prestatzen ari da. Erreforma horren ondorioz, derrigorrezko hezkuntza bi urte luzatuko da eta horrenbestez, ha-

malau urte arte izan beharrean hamasei arte izango da derrigorrezko. Gaur egun hezkuntza-sistema uzten duten neska-mutil askok beste bi urte egingo dituzte. Horrek izango al du eraginik nerabeen gizarte-harremanen ereduetan (taldeak sortzean, adiskidetasun-harremanetan eta abarretan)? Nerabeek dituzten gizarte-harremanen erduei dagokienez, ba al dago alderik orain hamabost urte dituztenen (horietako asko hezkuntza-sistematik kanpo daude eta horrenbestez, baita homegeneotasunen bat duten taldeetatik kanpo ere) eta derrigorrezko hezkuntza bi urte luzatzen denean hamabost urte izango dituztenen artean? Galdera horri erantzuteko modu on bat gaur nerabe-talde bat aztertzea eta erreforma gauzatu ondoren pareko beste nerabe-talde bat aztertzea izan liteke. Nolabait ere bi belaunaldi desberdin konparatzen ariko ginateke. Gisa horretako azterketei bizitza-zikloaren orientabideko autoreek (horiek izan dira, hain zuzen ere, diseinu-mota hau proposatu dutenak, historiaren eta belaunaldien eraginek duten garrantziarekiko sentsibilitate berezia baitute) *diseinu sekuentzial* deitu izan diete. Diseinu sekuentzial horien funtsezko logika (gauza bera aztertzea, modu berean, belaunaldi desberdinetako pertsonak, baina ahalik eta parekoenak, osatutako taldeetan) luzerako nahiz zeharkako planteamendu batean erabil daiteke. Bi kasu horietan, diseinu sekuentzialek badute alde on bat: aldaketa historikoek garapen psikologikoan izan duten eraginari buruzko informazioa ematen dute. Baina, aitzitik, oso garestiak eta neketsuak izan ohi dira. Bestalde, zeharkako eta luzerako diseinu sinpleen, lehenago argitu ditugunen, alde onak eta txarrak dituzte.

Planteamendu bakoitzak alde onak eta txarrak dituenez, ikerketa ebolutiborako diseinuei buruz egin dugun aurkezpen labur hau ezinbestean maila absolutuan diseinu bat ez dela beste bat baino hobea esanez amaitu behar dugu. Diseinu bat bestea baino egokiagoa izango da ikertu nahi dugun arazoaren edo lortu nahi dugun erantzun-motaren arabera. Adibidez, lehenengo bi urteetan gurasoekin izandako harreman afektiboek eskolaurreko urteetako adiskidetasun-harremanetan izango duten eragina zenbaterainokoa izango den aztertu nahi badugu, luzerako diseinu batera jo beharko dugu, subjektu berak une desberdinetan aztertu beharko baititugu. Aitzitik, bi-hiru urteko haurrak bost-seikoak baino agresiboagoak diren edo ez aztertu nahi badugu, nahikoa izan liteke zeharkako diseinu bat erabiltzea. Bestalde, historiarekin zerikusia duten aldaketei buruzko ikerketek nahitaez jo beharko dute diseinu sekuentzial batera, horrek ahalbidetuko baitie hainbat belaunaldi aztertzea. Zalantzarik gabe, aukera-aniztasun hau mesedegarria da Psikologia Ebolutiboarentzat, ikertzaileei interesatzen zaizkien arazo eta egoera anitzei aurre egiteko bitarteko metodologikoak izango baititu eskura.